EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

## 2019KO EKAINAREN 28KO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAK

**Adierazpen instituzionala, Hondurasko Estatu-kolpearen 10. urteurrenari buruz. [11\11\05\00\00066]**

Onetsia.

"Ostiral honetan, ekainaren 28an, 10 urte betetzen dira Hondurasen estatu-kolpea eman zenetik. Estatu-kolpe horren ondorioz, orduko presidentea, Manuel Zelaya, hautetsontzietan zilegitasunez hautatua, erbesteratua izan zen inposizio militar baten bidez.

Kolpe horren ostean, bizitza eta parte-hartze politiko demokratikoa ezinezko bihurtu da, herritarrek etengabe pairatu duten errepresioagatik. Errepresioak gogor jo ditu, batez ere, eskubide eta askatasun zibilen alde borrokatzen diren kolektiboak, hala nola LGTBI kolektiboa eta lurraldearen eta ingurumenaren aldeko defentsan diharduten komunitateen buru diren pertsonak, Berta Cáceres kasu.

2015ean, Juan Orlando Hernández presidente izatera iritsi zen, iruzurrezkotzat jotako hauteskunde-prozesu baten ondoren. Beste eskaera batzuen artean, AEEk eskatu zuen errepikatu zitezela hauteskundeak. Hamar urte hauetan, normaltasunera itzuli beharrean, protesta sozialak areagotu egin dira. Gaur egun, gehiengo sozialak eskatzen du irten dadila Juan Orlando Hernández gobernutik, egin daitezela hauteskunde demokratikoak, eta gelditu dadila armadak eta poliziak biztanleria zibilaren kontra darabilten errepresioa.

Arestian deskribatutakoaren erakusgarri handiena migratzaileen karabanak dira –komunikabideen bitartez ikusi ahal izan ditugu–, eta, Erdialdeko Ameriketako zenbait pertsonaz osatuta bazeuden ere, Hondurasko herritarren proportzioa oso handia da. Pertsona horiek bizitza arriskatzen dute, batzuek baita galdu ere, beren herrialdean uzten ez zaien bizitza eraikitzeko.

Bien bitartean, bizitza duina eraiki nahian herrialdean geratzen direnak eta kalitatezko zerbitzu publikoen alde –adibidez, hezkuntza eta osasuna– protesta egiten dutenak bortizki erreprimitzen dira. Azken protesta-egun hauetan bakarrik, gutxienez hiru lagun hil dira, 20 baino gehiago larri zauritu,

## ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO EL DÍA 28 DE JUNIO DE 2019

**Declaración institucional en relación con el 10 aniversario del golpe de Estado en Honduras. [11\11\05\00\00066]**

Aprobada.

"Este viernes, 28 de junio, se cumplen 10 años del golpe de Estado en Honduras, que, mediante imposición militar, envió al entonces presidente, legítimamente elegido por las urnas, Manuel Zelaya, al exilio.

Después de este golpe, la vida y la participación política democrática se ha visto imposibilitada por la represión a la población, que ha sido constante y se ha cebado especialmente con colectivos que luchan por los derechos y libertades civiles, como pueden ser el colectivo LGTBI o personas que lideran comunidades en defensa del territorio y del medio ambiente, como es el conocido caso de Berta Cáceres.

En 2015, Juan Orlando Hernández alcanzó la presidencia tras un proceso electoral que fue calificado como fraudulento. Entre otras peticiones, la OEA pidió que se repitieran las elecciones. En estos diez años, lejos de recuperar la normalidad, las protestas sociales han ido a más. Hoy, una mayoría social demanda la salida de Juan Orlando Hernández del gobierno, nuevas elecciones democráticas y que pare la represión que ejercen el ejército y la policía contra la población civil.

La mayor muestra de lo anteriormente descrito son las caravanas de migrantes, que se han seguido mediante los medios de comunicación, y, aunque estaban compuestas por diferentes personas centroamericanas, la proporción de ciudadanas hondureñas es muy grande. Estas personas arriesgan y algunas pierden sus vidas por construir unas vidas que en su propio país no se les permiten.

Mientras tanto, las personas que quedan en el país intentando construir una vida digna en el territorio y que protestan por unos servicios públicos de calidad, como son la educación y la sanidad, son violentamente reprimidas. Solo en estos últimos días de protesta, ha habido al menos tres muertos,

eta beste hainbat eta hainbat atxilotu dira.

Horregatik, Hondurasko herriari gure elkartasun eta laguntza guztia helarazi nahi dizkiogu une zail hauetan. Eusko Legebiltzarretik, Hondurasko Gobernuaren portaera salatzen dugu, herritarren protestak bortizki erreprimitzen ari baita. Gobernuari eskatzen diogu errepresioa geldiarazteko eta ezar ditzala elkarrizketarako eta parte-hartze politiko demokratikorako bide batzuk, Hondurasi uneko egoera jasanezin honetatik irtetea ahalbidetuko diotenak".

más de una veintena de heridos graves y numerosos detenidos.

Por todo ello, queremos enviar al pueblo de Honduras toda nuestra solidaridad y apoyo en estos duros momentos. Desde el Parlamento Vasco denunciamos el comportamiento del gobierno hondureño, que está reprimiendo violentamente las protestas ciudadanas. Pedimos al gobierno que detenga la represión y establezca los canales de diálogo y participación política democrática que permitan salir a Honduras de la actual situación insostenible".